

Sendagaiak sentzuz erabiltzeko gomendioak

4.zenbakia, 2020ko otsaila

Zeure pazienteen segurtasuna hobeto ezazu, TRATAMENDU AKTIBOAREN ORRIA erabilia

Urtero, munduan miloika pazienteek kalteak izaten dituzte, ematen zaien osasun arreta segurtasun gutxikoa baita. Kalterik nabarmenenak dira diagnostikoari eta sendagaien preskripzioari eta erabilerari buruzkoak¹. Horrela, gure erkidegoan, "2017-2020 aldirako Pazientearen Segurtasun Estrategian", hainbat ekintza-lerro ezarri dira, pazienteek sendagaiak gaizki hartzeagatiko kalteak murrizteko².

Ildo horri jarraituz, behar-beharrezkoa da senideek, zainzaileek edota pazienteek beraiek parte hartzea, eta horretarako jakinarazi behar zaie zein diren preskribatu zaizkien sendagaiak². Hori lortzeko tresnetako bat da pazientearentzako **Tratamendu Aktiboaren Orria**.

| Osakidetza | | Tratamendu Aktiboaren Orria pazientearentzat | |
|--|--------------|--|------------|
| Osasun Zentroa eta Medikua | | Pazientea | |
| OTI: | | Ekarpena: | |
| MEDIKAMENTU EDO PRODUKTU SANITARIOA | | Gosaria | |
| Jarrabideak | | Bakarkari | |
| | | Merienda | |
| | | Alfaria | |
| | | Oheratzen | |
| | | Errebisio edo amaiera | |
| Irrazpen luzeko tratamendu kronikoak | | | |
| Enoxaparina Sodiako SUBCUTANEA CLEXANE 40MG (ARROBU) 10 JERRINGAS 0,4ML (CLEXANE 40MG (ARROBU) 10 JERRINGAS 0,4ML) 1 (JERRINGA) 24 orduko | 1 (JERRINGA) | | 2020/05/27 |
| Jarrabideak: Medikuzko edo erizaintzaren esana bete. | | | |
| ENALAPRIL BELTZA 10MG 56 COMPRIMIDOS EFG (ENALAPRIL 10MG 56 COMPRIMIDOS) 1 (COMPRIMIDO) Gosara | 1 | | 2020/05/27 |
| Jarrabideak: Medikuzko edo erizaintzaren esana bete. | | | |
| ACFOL 5MG 28 COMPRIMIDOS (ACFOL 5MG 28 COMPRIMIDOS) 1 (COMPRIMIDO) 1 Egunetik behin | | 1 (COMPRIMIDO) | 2020/05/27 |
| Jarrabideak: ... | | | |
| FARMALASTIC TALLA 3 (MEDIAS ENTERAS HASTA CINTURA COMP FUERTE) 1 (UNIDAD) 3 habetere | | Jarrabideak ikusi | 2020/05/27 |
| Behar direnean soilik erabilizko tratamenduak (beharraren arabera) | | | |
| FLUTICASONA FURATO 27,5 MCG SPRAY NASAL 120 DOSIS (FLUTICASONA) 24 orduko | | Jarrabideak ikusi | 2020/05/27 |
| Jarrabideak: Astez aurretik sudura garbitu. Inhalazio bat baino gehiago badira, hartu txandak. Medikuzko edo erizaintzaren esana bete. | | | |
| ESASTEL ORAL EBASTEL 10MG 20 COMPRIMIDOS RECUBIERTOS (EBASTEL 10MG 20 COMPRIMIDOS RECUBIERTOS) 1 (COMPRIMIDO) 24 orduko | | Jarrabideak ikusi | 2020/05/27 |
| Jarrabideak: Medikuzko edo erizaintzaren esana bete. | | | |

Mediku-errezetei eta banaketa-aginduei buruzko 1718/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, derrigorrezkoa da pazienteari tratamendu aktiboaren orria ematea. Tratamendua ezagutzeko eta haren erabilera errazteko informazioa jasotzen da orri honetan, bai eta errezeta elektronikokoan preskribatuta dituen sendagaien administrazioa errazteko informazioa ere; hala nola, dosia, noiz eta nola hartu, tratamenduaren iraupena, haren amaiera edo berrikuspen data, eta abar³.

Medikamentuekin lotutako segurtasun-arazoak saihesteko, oso garrantzitsua da paziente bakoitzaren historial farmakoterapeutikoa eguneratuta mantentzea, aldian-aldian berrikustea eta trantsizio asistentziala egiten den bakoitzean kontziliatzea. Horretarako, profesional guztiak inplikatu behar dira. **Pazientei Tratamendu Aktiboaren Orria eman behar zaie beti, edozein aldaketa egiten denean:**

- Tratamendu berria jartzean
- Aldez aurretiko tratamenduaren posologia aldatzean
- Tratamenduren bat etetean
- Pazienteak hartzen dituen sendagaiak berrikustean
- Trantsizio asistentzialetan (ospitaleko alta, kanpo-kontsultak, larrialdiak, eta abar).

Presbiden, pazientearen "Medikazio-orria" atalean sartzen bazara, aukera duzu inprimatzeko tratamendu aktiboaren orria osorik edo, bestela, tratamendu akutuen ingurukoa. Era berean, orria euskaraz zein gaztelaniaz inprima dezakezu.

| Preskripzioa | Medikazio-orria | EU | ES |
|--------------------|-----------------------------|----|----|
| Preskripzioen k... | Tratamendu aktiboaren orria | EU | ES |
| | Tratamendu akutuen orria | EU | ES |

Gainera, pazienteek aukera dute haien tratamenduaren inguruko informazioa jasotzeko honako lau leku hauetan: Osasun-karpetan, "Nire tratamendua" aplikazioan, farmazia-bulegoan edo osasun-zentroko administrazio arloan, azken bi hauetan tratamendu aktiboaren orria eskatuz.

Herritarrek, informazioa hobeto ulertzeko, azalpen-fitxa eta bideoa eskuragarri dituzte honako esteka hauetan:

- I-botika fitxa: [Tratamendu aktiboaren orria: asmatu puzzlea osatzen.](#)
- Bideoa: [Tratamendu Aktiboaren Orria.](#)

Gomendioak

Nahitaezkoa da pazientearen historia farmakoterapeutikoa eguneratuta izatea, pazientearen tratamenduan akatsik ez izateko.

Pazientearen eskubidea da Tratamendu Aktiboaren Orria eskura izatea.

Sendagileak inprimatu eta emango die pazientei, senideei edota zainzaileei Tratamendu Aktiboaren Orria.

BIBLIOGRAFIA

1. Who.int [Internet] Organización Mundial de la Salud. Seguridad del Paciente. Eskuragarri hemen: <https://www.who.int/patientsafety/es>
2. Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetza/Osasun Saila 2017-2020. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/informazioa/2017-2020rako-osakidetza-pazientearen-segurtasun-estrategiak-sei-ekintza-ildo-berri-jaso-ditu/web01-a2inform/eu/>
3. Real Decreto 1718/2010, de 17 de diciembre, sobre receta médica y órdenes de dispensación. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/boe/dias/2011/01/20/pdfs/BOE-A-2011-1013.pdf>